

ORDU-KREDITUEN SISTEMA EUSKARA-IKASTAROETAN. IVAPekin HITZARMENA DUTEN ERAKUNDEEI ZUZENDUA

SARRI EGINDAKO GALDEREN ERANTZUNAK

Gaiak

- 1.- Ordu-kredituaren definizioa, kalkulatzeko modua, osagaiak...
- 2.- Ordu-kreditua kontsumitzea eta saldoa eguneratzea
- 3.- Ordu-kreditua eskaerak egiterakoan
- 4.- Ordu-kreditua ikastaroan zehar
- 5.- Ordu-kreditua lanorduz kanpoko ikastaroetan
- 6.- Ordu-kreditua udako ikastaroetan

IVAPekin hitzarmena duten erakundeetako langileei dagokienez, ordu-kredituen sistema arau honen bidez ezarri da:

AGINDUA, 2005eko azaroaren 30ekoa, Ogasun eta Herri Administrazio sailburuarena. Agindu honen bidez, batetik, arautzen da Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeak (IVAPek) Euskal Autonomia Erkidegoko herri-erakundeei eskainiko dien hizkuntza- prestakuntzako zerbitzua, eta bestetik, ezartzen dira euskara-ikastaroetara doazen udal-langileak ordezkatzeko dirulaguntzen arauak (EHAA, 2005-12-19; 239 zk.)

#EUSKADIBERRIA



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

GOBERNANTZA,
ADMINISTRAZIO DIGITAL ETA
AUTOGOBERNU SAILA
DEPARTAMENTO DE GOBERNANZA,
ADMINISTRACIÓN DIGITAL Y
AUTOGOBIERNO



ORDU-KREDITUEN SISTEMA EUSKARA IKASTAROETAN IVAPekin HITZARMENA DUTEN ERAKUNDEEI ZUZENDUA

1. gaia: ordu-kredituaren definizioa, kalkulatzeko modua, osagaiak...

1- Zer da ordu-kreditua

Ordu-kreditua (OK) langile bakoitzari finantzatuko zaion hizkuntza-prestakuntzako gehieneko ordu-kopurua da.

2- Nori ezartzen zaio ordu-kredituen sistema?

Ordu-kreditua IVAPekin eskolatzen diren langile guztiei ezartzen zaie; hau da, ikastaroak lanorduetan egiten dituztenei nahiz lanorduz kanpo egiten dituztenei.

3- Noiz ezartzen da ordu-kreditua?

IVAPekin hitzarmena duten erakundeen kasuan, ordu-kredituen sistema 2006-07 ikasturtean hasi da aplikatzen. Beraz, ikasturte horretatik aurrera, IVAPekin eskolatzen den langile bakoitzari bere ordu-kreditua finkatzen zaio egiten duen lehen ikastaroan.

4.- Zein dira ordu-kredituen sistemaren helburuak?

- Bitartekoen eta helburuen artean arrazoizko proportzioa ezartzea, hizkuntza- prestakuntzari eskainitako gastuak muga egoki eta nahikoak izan ditzan hizkuntza-eskakizunak egiaztatzeko.
- Langileek hizkuntza-eskakizunak modu progresiboan, prestakuntza jaso ahala, gainditu ditzaten bultzatzea.

5- Nola kalkulatu da langile baten ordu-kreditua?

Ordu-kreditua kalkulatzeko, langilearen hasiera-maila eta egiaztatu behar duen hurrengo hizkuntza-eskakizuna hartzen dira kontuan:

- **Langilearen hasiera-maila:** ordu-kredituen sistema indarrean jarri denetik aurrera, hau da 2006- 07 ikasturtetik aurrera, langilea eskolatzen den lehen ikasturtean hasten duen maila (urratsa) izango da.
- **Langileak egiaztatu behar duen hurrengo hizkuntza-eskakizuna:** langileak egiaztatu duen azken hizkuntza-eskakizunaren ondorengoa da. Oraindik mailarik ez badu egiaztatu, 1. hizkuntza- eskakizuna da. Ez nahastu langileak lanpostuan ezarrita daukan hizkuntza-eskakizunarekin.



- Bi aldagai horiek gurutzatuta, ordu-kredituak jasotzen dituen taula hau osatzen da:

HASIERA-MAILA	1HE	2HE	3HE	4HE
A0A0/A1A0	1.210	1.770	2.430	2.730
A1A1	1.030	1.600	2.210	2.510
A2A1	890	1.330	2.020	2.320
A2A2	770	1.150	1.810	2.110
B1A2	490	760	1.210	1.510
B1B1	380	610	1.190	1.490
B2B1	210	420	730	1.030
B2B2	160	370	590	890
C1B2	60	160	340	640
C1C1				300

6- Langilearen hasiera-maila aldatu daiteke?

Ez. Ordu-kredituari begira hasiera-maila ez da aldatzen; hau da, behin ordu-kreditua finkatu denean, hasiera-maila ere finkoa da nahiz eta ondorengo ikasturteetan langilearen euskara maila ordu-kreditua ezarri zitzaionean zeukana baino altuagoa edo baxuagoa izan. Beraz, hasiera-maila bat eta bakarra da langileak ikasprozesuan zehar egiaztatu nahi dituen HE guztietarako. Bestela esanda, behin langilearen hasiera-maila finkatuta, aurreko taulan hasiera-maila horri dagokion lerroan bilatu behar dira HE bakoitzerako langile horrek izango dituen ordu-kredituak.

7- Langilea beste lanpostu batera joaten bada eta lanpostu horretako hizkuntza-eskakizuna desberdina bada, berriro kalkulatu behar zaio ordu-kreditua?

Ez. Ordu-kredituak ez du zerikusirik lanpostuaren hizkuntza-eskakizunarekin. Ordu-kredituaren xedea da langileak gainditu behar duen hurrengo hizkuntza-eskakizuna. Langilea lanpostuz aldatu arren, gainditu behar duen hurrengo hizkuntza-eskakizuna eta hasiera-maila ez dira aldatzen; beraz, bere ordu-kreditua ere ez da aldatzen.

2. gaia: ordu-kreditua kontsumitzea eta ordu-kredituaren saldoa eguneratzea

8- Nola gastatzen da ordu-kreditua?

Ordu-kreditua ikasleari emandako orduekin gastatzen da.

Garrantzitsua da ohartzea emandako orduak zenbatzen direla eta ez ikasleak hartutako orduak. Izan ere, ordu-kredituak ez dauka zerikusirik ikasleak izandako asistentziarekin; adibidez, hilabete batean 40 eskola-ordu eman badira taldean, taldeko guztiei 40 ordu kenduko zaie ordu-kreditutik, berdin % 100ekoa asistentzia izan duenari zein % 80koa izan duenari.



9- Noiz eguneratzen da ordu-kredituaren saldoa?

Ordu-kredituaren saldoa hilez hil eguneratzen da.

Zenbaketa ikaslearen taldearen lehenengo klase egunetik ikasturtea amaitu arte egingo da, edo, kasuan kasuan, ikasleak ikastaroa behin betiko uzten duen momentura arte.

10.- Zer gertatzen da ikasleak ikastaroa behin betiko uzten badu?

Ikastaroan hasi eta gero ikasleak eskola behin betiko uzten badu, gelditu egiten zaio orduen kontaketa.

Baina, orduen kontaketa gelditu dadin, ezinbestekoa da ikaslearen erakundeak eskola uztearen berri IVAPi ematea; alegia, erakundeak ez badio IVAPi eskola uztea jakinarazten ikaslearen ordu kredituak agortzen jarraituko du ikastaroan eman diren orduekin.

11- Langileak hurrengo HE gainditzen duenean, zein da ordu-kredituaren saldo berria?

Langile bati geratzen zaion saldoa kalkulatzeko, nahikoa da kenketa hau egitea: momentu bakoitzean dagokion ordu-kreditua ken hasiera-mailatik emandako eskola-orduak.

$$\text{Saldoa} = (\text{ordukreditua}) - (\text{emandako orduak})$$

Adibidez, hona hemen langile baten 3HE lortu arteko ikasprozesu posible bat. Ikusi nola eboluzionatzen duen bere saldoak ikasturtearen hasieran eta bukaeran:

Ikasturtea	Hasiera-maila ¹ (urratsa)	Hurrengo HE	OK	OK saldoa ikasturtearen hasieran	Ikasturtean emandako orduak ²	Emandako orduak metatuta	OK saldoa ikasturtearen amaieran	HE azterketaren emaitza ekaineko azterketa aldian
2006-07	A2A2	1HE	770	770	300 (2 orduko ikastaroa)	300	470 (=770-300)	
2007-08	A2A2	1HE	770	470 (=770-300)	300 (2 orduko ikastaroa)	600	170 (=770-600)	GAI
2008-09	A2A2	2HE	1.150	550 (=1.150-600)	300 (2 orduko ikastaroa)	900	250 (=1.150-900)	
2009-10	A2A2	2HE	1.150	250 (=1.150-900)	300 (2 orduko ikastaroa)	1.200	-50 (=1.150-1.200)	GAI
2010-11 (urri-otsaila)	A2A2	3HE	1.810	610 (=1.810-1.200)	440 (5 orduko ikastaroa)	1.640	170 (=1.810-1.640)	
2010-11 (otsail-ekaina)	A2A2	3HE	1.810	170 (=1.810-1.640)	440 (5 orduko ikastaroa)	2.080	-270 (=1.810-2.080)	GAI

¹ Ordu-kredituaren ondorioetarako hasiera-maila ez da aldatzen.

² Hemen adierazten diren ordu-kopuruak erreferentziarako baino ez dira; kasuan kasu aldatu egin daitezke.



3. gaia: ordu-kreditua eskaerak egiterakoan

12- Langile batek egin al dezake eskaerarik bere saldoa ikastaroaren iraupena baino murriztagoa denean? (adibidez, aurreko ikasturtearen amaieran +25 orduko saldoa geratu zaion langile batek)

Bai. Nahiz eta ordu-kreditua agortzear egon langileak badauka eskaera egiterik. Ikastaroak aurrera egin ahala saldoa agortu egingo zaio, baina, horrela izanda ere, eskoletan jarraitu eta ikastaroa amaitu ahal izango du.

Dena dela, saldoa agortzen zaionetik ikastaroa bukatu bitartean ikasleari emandako orduak zenbatu eta, hala badagokio, kendu egingo zaizkio hurrengo hizkuntza-eskakizunari dagokion ordu-kreditutik (ikus 16. galdera).

13- Ordu-kreditua agortuta daukan langile batek egin dezake hurrengo ikasturterako eskaerarik?

Eskaera egin bai, baina ekaineko hizkuntza-eskakizunetako azterketen emaitzen zain geratuko da. Hau da, ordu-kreditua agortuta duten langileen eskaerak erakunde bakoitzak baimendu edo ukatuko ditu beste eskaera guztiekin batera, baina baimena lortzen dutenak hizkuntza-eskakizunen azterketen emaitzen baldintzapean geratuko dira. Ekaineko azterketen emaitzak argitaratzen direnean, IVAPek ordu-kredituaren kontrola egingo du eta saldo negatiboan jarraitzen duten eskaera guztiak bertan behera utziko ditu eta langileak ezingo du hurrengo ikasturtean ikasturorik egin.

Aldiz, ekaineko azterketan langileak hizkuntza-eskakizuna gainditzen badu, hurrengo HErako ordu-kreditua irekiko zaio eta ikastaroa egin ahal izango du, jakina, betiere saldo berria positiboa baldin bada (ohartu behar da litekeena dela, kasu batzuetan, langilearen saldo negatiboa oso handia izatea eta, ondorioz, litekeena dela emandako orduen metatua handiagoa izatea hurrengo hizkuntza-eskakizunerako ordu-kreditua baino. Horrelakoetan, bada, ordu-kreditu berria ireki arren langilearen saldoak negatiboa izaten jarraituko luke).

14- Ordu-kredituen sisteman, langileak saldo positiboa duen bitartean, erakundeak behartuta al daude eskoletarako baimena ematera?

Ez daude behartuta.

4. gaia: ordu-kreditua ikastaroan zehar

15- Ikastaroa hasteko saldoak positiboa izan behar du nahitaez?

Bai, ikastaroari hasiera eman ahal izateko beharrezkoa da saldoa positiboa izatea.

16- Zer gertatzen da ordu-kreditua ikastaroan zehar amaitzen bada?

Ikasleak eskolan jarraitu ahal izango du eta ikastaroa amaitu ahal izango du. Dena dela, saldoa agortu ondoren ikastaroa bukatu bitartean emandako orduak zenbatu eta kendu egingo zaizkio hurrengo hizkuntza-eskakizunari dagokion ordu-kreditutik (horixe da, hain zuzen, 11. galderako adibidean 2009-2010 ikasturtean gertatzen dena).



5. gaia: ordu-kreditua lanorduz kanpoko ikastaroetan

17- Lanorduz kanpoko ikastaroetan kontsumitzen da ordu-kreditua?

IVAPekin hitzarmena duten erakundeen kasuan, lanorduz kanpo egiten diren ikastaroek lanorduen barruan egiten direnek bezalaxe kontsumitzen dute ordu-kreditua.

6. gaia: ordu-kreditua udako ikastaroetan

18- Udako ikastaroen kasuan, nola zenbatuko da ordu-kreditua?

IVAPekin hitzarmena duten erakundeen kasuan, udako ikastaroak ere arau orokorraren arabera zenbatuko dira; hau da, udako ikastaroan emandako eskola-orduak ere ordu-kreditua kontsumituko dute.